

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa hondo funtzionatzeko, baliabide batzuk kontuan hartu eta errespetatu behar ditugu:



BALIABIDE INTELEKTUALAK:

Gure produktua merkatuan berria izango denez, ez dugu nahi gure ideia lapurtua izatea, produktua gurea da, guretzat nahi dugu eta guk izango dugu hau fabrikatzeko eta saltzeko aukera. Beraz, hau patentatu egin beharko dugu, hau da, produktua erregistratu beharko da. .



Guk sortutako web-orri batean salduko dugu produktua eta bertan honi buruzko informazio osoa aurkitzeko ahalmena izango dugu. Honen ondorioz, lan aukera, produktua erosteko aukera eta bezeroei laguntza eskainiko da.

BALIABIDE FISIKOAK:

Baliabide hau betetzeko, lokal bat antolatu beharko dugu bertan produktuaren muntaketa eta langileen bilerak egiteko, produktua ez da hor salduko. Lokalean, behar ditugun trikimailuak egongo litzateke, ordenagailu batzuk, mahi batzuk... Lokala lankide guztien artean aukeratu behar dugu gero alokatzeko, eta honen prezioa negoziatu beharko litzakegu lokalaren jabearekin.



- Argazkian bezalako bat izango litzateke, ez dugu uste behar duenik, azken finean, produktuan web orri batean eta MediaMarkt-en salduko da, hau, almatzen modukoa izango da.

□ GIZA BALIABIDEAK:

Enpresa guztiek dituzte giza baliabideen beharra. Ez dakigu zehazki zenbat pertsona izango garen, momentuz 4 izatea pentsatu dugu eta behar baldin bada pertsona gehiago kontratatuko ditugu.

- Bat, ordenagailuan egongo da, web orriko zalantzak eta aktualizazioetaz arduratuko dena.
- Bigarrena eta hirugarrena, produktuaren muntaiaz arduratuko dira, hau da, produkturako lortu ditugun materialak lortuz gero, hauek lotzeaz arduratuko dira.
- Azkenekoak, kontuak eramango dituenak, diru sarrerataz, biltegian dauden gauzetaz eta gastuetaz arduratuko da.



□ FINANTZA-BALIABIDEAK:



Produktuak prezio bat izan beharko du salgai jartzeko, prezioa guk jarriko diogu. Gure produktuaren prezioa 14,99 eurokoa izango da. Enpresa osatzen dugunok, diru kantitate bat jarri beharko dugu hasierako ordainketa egiteko. Diru gehiago behar dugula ikusten baldin badugu, beti dago aukeran bankuari mailu bat eskatzeak.



Diru sarreren atalean, informazio

guztia aurkituko duzu oso ongi garatua.